



Usurbilgo Udala



## NEKAZARITZA eta INGURUMENA

**GAIA: Hondakinen bilketa eta tratamenduaren zerbitzu publiko eta jarduera ekonomikoaren kudeaketa zuzena merkataritzako sozietate baten bidez. (Esp. Zenbakia: ID.12/2010-0064)**

Hernani, Oiartzun eta Usurbileko udalerriek 34.800 biztanle inguru dituzte hiruen artean eta denek bete behar dute toki araubideari buruzko legeriak 5.000 biztanletik gorako udalerri ezartzen diena denek baitute 5.000 biztanle baino gehiago: hondakin organiko hartzigarrien atala eta beste hondakin-atal birziklagarriak bereizita jasotzeko zerbitzua ematea eta hondakin horien tratamendua egitea.

Usurbilgo udalak obligazio horren inguruan egindako apustua zera izan da: bilketari dagokionez, atez ateko gaikako hondakin bilketa eta tratamenduari dagokionez, berriz, konpostatzearen aldekoa, birzikla ezin diren hondakinen ehunekoa ahalik eta gehien murrizteko helburuz. Zerbitzu eta ekintza horiek nortasun juridiko desberdindua izango duen entitate baten bidez gauzatu behar direla pentsatzen du gainera, aipatutako hiru administrazioez osaturik egongo dena, guztien ahaleginak bateratzeko.

Entitate desberdindu hori izango da gaikako hondakin bilketa zuzenean kudeatuko duena, eta, ahal dela, konpostatza-planta ere gauzatu eta kudeatuko duena (edo, hirugarren batzuen konpostatza-plantetan tratamenduaren kudeaketa bere gain hartuko duena). Horrez gain, kontu hauen guztien inguruko aholkularitza lanak ere hartuko ditu bere gain, birziklatzearen alorrean emaitza onenak lortzeko eta gai honi dagokionez indarrean dagoen legeria betetzeko, batez ere Europatik datorrena.

Hiru udalerrri hauek gauzatu nahi duten egitasmoak, beraz, zerbitzu publiko bat emateko pertsona juridiko bat eratzea eskatzen du. Baina pertsona juridiko hori, gainera, jarduera ekonomiko bat egitera ere hel daiteke, hala nola konpostatza-plantaren bidez hondakin organikoaren tratamendurako zerbitzua ematera, baita egin ere, hondakin bilketa edo tratamendua hobetu edo sistema honetan sartu nahi duten beste toki administrazio edo pertsonen aholkularitza emanaz.

Aurreko guztia dela eta, eta bi zerbitzuei dagokienez, lehenengo eta behin beharrezkoa zen bere garaian San Markoko Mankomunitatearen esku utzitako hondakin horien bilketa, tratamendu eta aprobetxamendu eskumenak berreskuratzea, Usurbilgo Udalak zuzenean kudeatu ditzan; eta hortaz, zerbitzuak ematerakoan bikoizketa ekidin. Hori dela eta, 2008ko abenduaren 16an hitzarmena formalizatu zen San Markoko Mankomunitatearekin Usurbilgo Udalak aipatutako eskumenak berreskuratu zitzaizkion, 2009ko abenduaren 30ean aldatutakoa.

Bestalde, hiru udalerrien artean eratuko den entitateak burutuko duen jarduera ekonomikoari dagokionez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 86. artikulua 1. atalarekin eta Toki Araubideari dagokionez indarrean dauden lege xedapenen Testu Bateginaren 97. artikulua 1. artikulua adostasunean, toki erakundeak jarduera ekonomikoak egiteko ekimen publikoaz baliatu daitezkeen komenigarria eta egokia dela egiaztatzen duen espediente izapidetu behar da.

Horregatik, 2010eko urtarrilaren 27an Alkate-Lehendakari jaunak emandako dekretu bidez erabaki zen Azterketa Batzorde bat eratzea, zeini Memoria bat egitea eskatu zitzaion, non jardueraren alderdi sozial, juridiko, tekniko eta finantzarioa jasotzen diren. Horiek horrela, Azterketa



Usurbilgo Udala



Batzordeak Memoria landu du Hernaniko eta Oiartzungo udaletan izendatutako batzordeekin batera, eta hura onartu dute Usurbilen 2010eko otsailaren 15ean.

Aurrekoa guztia aintzat harturik eta espedientean Udalak jardura ekonomikoa burutzea komenigarria eta egokia dela jasotzen dela ikusirik, Ingurumen Batzordeak, 2010eko otsailaren 19an egindako bilkuran, Imanol Azpiroz eta Xabier Mikel Errekondoren aldeko botoekin, eta Lontxo Zubiria eta Iñaki Illarramendiren abstentzioarekin, Plenoari ondoko erizpena onartzea proposatzen dio:

## ERIZPENA

**Lehenengoa.-** San Markoko Mankomunitatearen esku utzitako hondakinen bilketa, tratamendua eta aprobetxamenduaren eskumenen eskuordetzea ezeztatzeke, eta horrenbestez, Usurbilgo Udalak horiek berreskuratuz zuzenean egikaritzeko, 2008ko abenduaren 10ean hartutako akordioa (2009ko abenduaren 29an aldatua) berrestea eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Udalak egindako eskumenen eskuordetzea hurrengo moduan ezeztatuko da:

1.1.- Usurbilgo Udalak berreskuratzen zituen berariazko eskumenak:

- a) Hiri-hondakinen eta asimilagarrien bilketa eta kudeaketa; beira, etxeko arriskutsuak, pilak eta arropa. Beraz, organikoen, edozein eratako paper-kartoa eta ontzi arinen bilketa eta kudeaketa:
  - Lehenengo fase batean, hirigune eta diseminatuetan.
  - Bigarren fase batean, industria-poligonoetan.
- b) Tamaina handikoen eta egurraren bilketa eta kudeaketa.
- c) Hiri-hondakinen eta asimilagarrien tratamendu eta balorazioa:
  - Konposta daitekeen zati organikoa.
  - Paper-kartoa
  - Ontzi arinak

1.2.- Bestelako eskumenak San Markoko Mankomunitatearen esku jarraitzen dute, eta, hain zuzen ere, hurrengoak egikaritzeko ditu:

- a) Hurrengo hiri-hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamendua:
  - beira
  - oihala
  - etxeko arriskutsuak
  - pilak
  - etxetresna elektriko guztiak ( linea zuria, marroia eta grisa).
- b) Errefusaren tratamendua.



Usurbilgo Udala



c) Tamaina handikoen tratamendua, Garbiguneen bidez.

**Bigarren.-** 2010eko urtarrilaren 27an Alkate-Lehendakari jaunak emandako dekretu bidez eraturako Azterketa Batzordeak landu duen Memoria "Hondakinen bilketa eta tratamenduaren zerbitzu publiko eta jarduera ekonomikoaren kudeaketa zuzena merkataritzako sozietate baten bidez" eta sozietatea arautuko duten estatutoak hasieraz onartzea, horrenbestez berreskuratutako eskumenen baitan hondakinen ustiapena Usurbilgo Udalak era zuzenean kudeatu dezan, Oiartzun eta Hernaniko udalekin bat eratuko duen nortasun juridiko desberdindua duen entitate baten bidez; zein Usurbilgo Udalaren baliabide propio edo zerbitzu tekniko izango da.

2.1.- Hernaniko eta Oiartzungo udalekin batera merkataritza-sozietate bat eratzea eta aipaturako memorian jasotzen diren Estatutoak onartzea. Hona hemen entitate horren ezaugarriak:

2.1.1.- Erantzukizun mugatuko sozietatea izango da eta, aplikatu beharreko beste xedapenen artean, Erantzukizun Mugatuko Sozietateen 1995eko martxoaren 23ko Legeari lotua egongo da, eta baita etorkizunean hura osatzeko edo aldatzeko onartzen den araudiari ere.

2.1.2.- Sozietatearen helburua hau izango da: hiri hondakinen eta asimilagarrien gaikako bilketa, kudeaketa, ustiaketa eta tratamendua, hala badagokio, gai horri buruz indarrean dauden lege xedapenak eta Europakoak betez, eta hondakinak gutxitzeko eta ahalik eta birziklatze maila altuenak lortzeko eta, hartara, arlo honetan indarrean dauden xedapenek diotena hobeto lortzeko helburua duten bilketa, kudeaketa, eta tratamendu sistema bereziak hobetzeko moduak eta neurriak hedatzea.

2.1.3.- Sozietatearen kapital soziala bostehun mila euroz osatua egongo da (500.000 €) eta bazkide bakoitzari dagozkion baltzu partaidetzak hauek izango dira:

Hernaniko Udala:	% 49
Oiartzungo Udala:	% 33
Usurbilgo Udala:	% 18

**Hirugarren.-** Aipaturako memoria eta bertan jasota datorren egitasmoa 30 egunez jendaurrean ikusgai jartzea. Epe horretan partikular nahiz entitateek oharrak egin ahal izango dituzte.

**Laugarren.-** Kapital ordainketari dagokionez, hauxe da udalbatza honi baltzu ekarpen gisa ematea dagokiona: udal honek orain arte atez ateko bilketa zerbitzua martxan jartzeko erosi izan dituen ondasunak entitate horri eskualdatzea (kamioiak eta abar), baltzu kapitalaren bere partaidetzaren adineko kopurua artekoak.

Usurbil, 2010eko otsailak 19

BATZORDE IDAZKARIA